

ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA
KUDEATZEKO SOZIJETATE ANONIMOA



SOCIEDAD ANONIMA DE GESTION DEL
PATRIMONIO CULTURAL EDIFICADO DE ALAVA

ARABARRIKO KONTRATAZIOAREN BARNE JARRAIBIDEAK

SARRERA. APLIKAZIOAREN KONTRATAZIO ESPARRUA

ARABARRI maiatzaren 16ko 879/1989 zk.ko Foru Dekretuaren bitartez sortutako sozietatea da.

2002ko maiatzaren 8an egindako akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak urte horretako martxoaren 22ko Administrazio Kontseiluaren estatutu erreformaren proposamena onartu zuen, sozietatearen izena eta jarduteko eremua aldatzeari dagokionez. Beraz, sozietatearen izena Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietatea Anonimoa izango zen eta bere jarduteko eremua Arabako kultura ondare eraiki osora hedatuko zen.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen ondorioetarako (aurrerantzean SPKL), ARABARRI “sektore publikoaren” zati da (3.1.d artikuluan ezarritakoarekin bat) eta, administrazio publikoa ez izan arren, aipatutako legean “esleipen ahalmena duen agintaritzat” jotzeko ezarritako baldintzak biltzen ditu (horren 3.3. artikulua). Ondorioz, SPKLn horretarako xedatutako aginduak aplika dakizkioke.

1. KONTRATAZIOAREN ALORREAN APLIKA DAITEKEEN ARAUBIDE JURIDIKOA KONTRATUEN KATEGORIAK.

ARABARRIk egiten dituen kontratuek izaera pribatua izango dute.

Egiten dituen kontratuen edukia, betetzea, gauzatzea, ondorioak eta iraungitzea zuzenbide pribatuari lotuko zaio.

2. APLIKAZIO EREMUA.

Jarraibide hauek, SPKLren arabera, erregulazio bateratua ez duten kontratuei aplikatuko zaizkie.



Era berean, jarraibide hauek enpresaren helburuak lortzeko beharrezko kontratuei aplikatuko zaizkie eta honako kategoria hauen barruan daudenei:

- a. Lanak: enpresaren xede sozialean jasotzen direnak eta SPKLren 6. artikulua emandako definizioaren barruan kokatzen direnak.
- b. Zerbitzuak: enpresaren xede sozialean jasotzen direnak eta SPKLren 10. artikulua emandako definizioaren barruan kokatzen direnak.
- c. Hornikuntzak: enpresaren xede sozialean jasotzen direnak eta SPKLren 9. artikulua emandako definizioaren barruan kokatzen direnak.
- d. Kontratu mistoak: enpresaren xede sozialen jasotzen direnak eta SPKLren 12. artikulua definitzen dituen moduan definitzen direnak.

3. KONTRATAZIOAREN PRINTZIPIO OROKORRAK

Jarraibide hauek aplikatu dakizkieken kontratuak SPKLren 1. artikuluan jasotako printzipioek arautuko dituzte eta horien esleipena, nolahi ere, publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bazterkeriarik gabeko printzipioen pean geratuko da, SPKLren 176. artikuluaekin bat etorritik.

Aurreko paragrafoan adierazitako printzipioak betetzen direla bermatze aldera, ARABARRI izapidetzen dituen kontratazio prozeduretan, kontratazio organoen jardura, jarraibide hauen arabera, edozelan ere, aipatutako printzipioen asebetetzera bideratuta dago.

Printzipio horiek betetzat emango dira jarraibide hauen hurrengo ataletan ezarritako arauak betez. Horiek aplikatu eta interpretatzeko jarduteko gidalerro hauek hartuko dira kontuan:

- a. Publizitate printzipioa bete dela ulertuko da, balizko lizitatzailerik onuren, ARABARRIko kontratuaren informazioa ematen duten eta merkatua konpetentziari irekitzeko bidea ematen duten zabaltzeko edo hedatzeko bitarteko egokiak eta nahikoa eskuragarri daudenak aplikatzen direnean.

- b. Gardentasun printzipioa betetzat joko da balizko lizitzaile orok lizitazioan parte hartzeko interesa duela adierazteko bidea ematen duen informazio egokia zabaltzen edo hedatzen denean, kasuan kasuko kontratua esleitu baino lehen. Orobat, printzipio horrek parte hartzaile guztiek esleitu nahi den kontratuari aplika dakizkioken arauak alde aurretik ezagutu ditzaketela dakar, baita aipatutako arauak modu berean erakunde guztiei aplikatzen zaizkiela ziur jakitea ere.
- c. Jarraibide hauetan ezarritakoaren arabera, balizko lizitzaileen sarbidea eta parte hartzea erraztuko duten beharrezko neurriak hartuko dira kontratua ekonomikoki onena den eskaintzari esleitze aldera.
- d. Konfidentziasun printzipioa errespetatuko da ARABARRIk bere gain hartzen duelako enpresariak isilpekotzat jo duten emandako informazioa ez zabaltzeko betebeharra, betiere horretarako justifikatutako arrazoiak baldin badaude eta, bereziki, eskaintzen sekretu teknikoak edo merkataritza sekretuak eta isilpeko alderdiak. Era berean, printzipio horren aplikazioak eskatzen du kontratistek izan dezaketen informazioaren isilpeko izaera errespetatu behar izatea, agirietan edo kontratuan izaera hori eman zaion kontratua burutzerakoan, edo bere izaera dela-eta horrelakotzat jo behar izatea.
- e. Berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioak bermatzeko, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko duten beharrezko neurriak hartuko dira. Neurri horiek, gutxienez, honako hauek hartuko dituzte barne:
 - 1) Kontratuen xedea modu ez baztertzailan idatziko da beti, fabrikazio, jatorri edo produktu jakinei erreferentzia egin gabe, marka, patentea, mota, jatorria edo produkzio jakina aipatu gabe. Halakorik emateko egoki justifikatu beharko da eta aipu "edo baliokide" batekin lagundu beharko zaio.
 - 2) Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako balizko lizitzaileekiko bazterketa zuzena edo zeharkakoa dakarren baldintzarik ez da ezarriko.
 - 3) Hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo justifikatzeko beste edozein agiri aurkezteko eskatuz gero, beste estatu kideetatik datozen agiriak tituluak, ziurtagiriak eta beste diplomak elkar onartzeko printzipioak dioenarekin bat onartzeko dira.



- 4) Interesa agertzeko edo eskaintzaren bat aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira beste estatu kideetako enpresek ebaluazio egokia egin eta eskaintza aurkeztu ahal dezaten.
- 5) Esleipen prozeduran hornitzaile batek baino gehiagok parte hartzen duten kontratuetan, ARABARRIk horiek guztiek kontratuari buruzko datu berak eta baldintza berberekin dituztela bermatuko du.

4. KONTRATAZIO ORGANOA

Indarrean dauden ARABARRIko estatutu sozialen arabera eta Sozietatearen Administrazio Kontseiluak Kudeaketa Zuzendaritzaren alde egindako ahalmenen eskuordetzeekin bat etorritik, zuzendaritza horri dagozkio kontratazio alorreko eskumenak Sozietatearen Administrazio Kontseiluak aldeztatik onartutako jarduerara guztietan.

ARABARRIren Kontratazio Organoak egiten dituen kontratuak prestatzeko, eskaintzeko, esleitzeko eta iraungitzeko beharrezko egintza eta izapide guztiak burutuko ditu, sozietateko langileek edo hirugarrenek egin ditzaketen txostenak edo izapide egintzak izan ezik.

5. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

ARABARRIrekin honako hauek bakarrik kontratatu ahal izango dute: pertsona fisikoek edo juridikoek, espainolek edo atzerritarrek, jarduteko erabateko gaitasuna dutenek, kontratatzeke debekuren batean sartuta ez daudenek eta ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzen dutenek.

Kasu bakoitzean eskatuko diren gaitasunaren eta kaudimenaren gutxieneko baldintzak kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute eta horrekiko proportzionalak izan beharko dute.

5.1. JARDUTEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA.

Jarduteko gaitasunaren egiaztapenak SPKLko 43. artikulutik 49. artikulura bitartean xedatutakoa izango du hizpide eta lege horren 61. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatuko da.

5.2. KAUDIMENA EGIAZTATZEA.

Agiriek enpresek bete beharko dituzten beharrezko dokumentazioa eta kaudimenerako gutxienerako baldintzak jasoko dituzte, enpresek SPKLren 64. artikulutik 68. artikulura bitartean ezarritako alderdi horiek frogatu dituzten.

Orobat, agiriek kaudimena egiaztatzeke beste bitarteko batzuk –aurrekoen desberdinak- onartu ahal izango dituzte, SPKLren 63. artikuluko 3. atalean xedatutakoarekin bat etorriz.

Enpresen sailkapenari dagokionez, sailkapen hori ez da beharrezkoa izango, agirietan kontrakoa esaten ez bada. Nolanahi ere, enpresaburuaren sailkapenak bere kaudimena egiaztatuko du hori lotu den kontratu mota berak egiteko. Kontratuok egiteko, gainera, ez da eskatzen kaudimena edukitzea.

Estatuko Lizitatzailerik eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emateak bakoitzean islatzen diren baldintzak eta gaitasunak egiaztatuko ditu, SPKLren 72. artikuluan ezarritako eran.

6. BERMEAK

Behin-behineko bermea eta bere zenbatekoa eskatzea edo ez eskatzea agirietan ezarritako da, SPKLren 84. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Behin betiko bermea eskatzea beharrezkoa izango da ARABARRI egiten dituen kontratu guztietan, kontratu txikiak izan ezik. Horietan, bermea eskatzea Kontratazio Organoaren aukerakoa izango da. Zenbatekoa agirietan zehaztuko da edo Kontratazio Organoaren ebazpenaren bitartez kontratu txikiak baldin badira, SPKLren 92. eta 84. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz. Prezioa atxikitzea behin betiko bermea emateko formula gisa Sozietateak egiten dituen kontratu mota guztietan erabili ahal izango da, Kontratazio Organoak horrela erabakitzen bada.



7. KONTRATUEN PRESTAKUNTZA

7.1. HASIERAKO TXOSTENA

Kontratu txikiei esleipen zuzena dagokienean izan ezik, kontratazioa ARABARRIko Zerbitzu Teknikoek egindako Hasierako Txostenarekin hasiko da. Bertan, egiteko asmoa dagoen kontratuarekin estali nahi diren beharren izaera eta hedadura azalduko dira, baita aipatutakoen xedearen egokitasuna eta horiek asebetetzeko edukia ere.

Hasierako txostenak barne har dezake Xehetasun Teknikoen Txostena, lizitazioan eskatutako errekerimendu teknikoak jasoko dituena.

7.2. BALDINTZA AGIRIA EGITEA

ARABARRIk egindako 50.000 eurotik (BEZ gabe) gorako obra kontratuetan, edo 18.000 eurotik (BEZ gabe) gorako zerbitzu edo hornidura kontratuetan, Baldintza Agiria egitea nahitaezkoa izango da. Bertan, kontratuaren oinarritzko ezaugarriak, aldagaiak onartzeko araudia, eskaintzak jasotzeko moduak, esleipen irizpideak eta, kasuan kasu, lizitatzailleek edo esleipendunak osatu beharreko bermeak ezartzen dira, baita SPKLren 104. artikuluan ezarritakoa ere. Agiri hori kontratuaren parte izango da.

Gainera, SPKLren II. eranskineko 17. artikulutik 27. artikulura bitartean barne hartutako zerbitzuen kontratuek 211.000 euroko zenbatekoa edo hori baino handiago badute, SPKLren 121.1. artikuluan xedatutakoari lotuko zaizkio.

8. KONTRATAZIO PROZEDURAK

ARABARRIk, kontratuaren zenbatekoaren arabera, jarraian azaltzen diren kontratazio prozedurak aplikatu ahal izango ditu.

8.1. ZUZENENKO ESLEIPENA.

- a. 50.000 eurotik beherako obra kontratuak eta 18.000 eurotik (BEZ gabe) beherako beste edozein egiteko aplikatu ahal izango da. Kasu horietan, izapideak Kontratazio Organoak gastua onartzea eta faktura dagokion

espedientean gehitzea bakarrik eskatuko du. Edozelan ere, kontratu horiek gehienez ere urtebete iraungo dute eta ezin izango dira luzatu. Beraz, obra kontratu txiki, zerbitzu kontratu edo hornikuntza kontratu izena hartuko dute. Gastuaren onarpena Kontratazio Organoak egin ahalko du ontzat ematean edota faktura ordaintzeko agintzean.

8.2. PROZEDURA NEGOZIATUA.

1.000.000 eurotik beherako obra kontratuak eta 100.000 eurotik (BEZ gabe) beherako beste edozein egiteko aplikatu ahal izango da. Kontratazioak honako izapideak eskatuko ditu:

- b. Hasierako Txostena: Kontratazioa ARABARRIko Zerbitzu Teknikoek egindako txostenarekin hasiko da, jarraibide hauen 7.1. atalean ezarritakoaren arabera.
- c. Baldintza Agiria: Baldintza Agiria egingo da, jarraibide hauen 7.2. atalean xedatutako edukiarekin.
- d. Prozedura irekitzea: Kontratazio Organoak ebazpena emango du, hasierako txostena eta baldintza agiria onartuz eta esleipen prozeduraren irekitzea xedatuz.
- e. Eskaintzen eskaera: Kontratuaren xedea burutzeko, gutxienez, gai diren hiru enpresei eskaintzak eskatuko zaizkie. Eskaintzen gutxienerako zenbaki horren eskaera posible ez bada, espedientean justifikatuko da.
- f. Publizitatea: Obra kontratuen kasuan, kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada, eta beste kontratu batzuetan 60.000 eurotik gorakoa, kontratugilearen profilean lizitazio iragarkia argitaratuko da.
- g. Ebaluazioa: Agirian eskaintzak baloratzeko irizpideak zehaztuko dira eta enpresekin negoziatu ahal izango diren edo aldagaiak aurkeztu ahal izango diren alderdi ekonomiko eta teknikoak sartu ahal izango dira.

Kontratazio Organoak aurkeztutako eskaintzak ebaluatzeaz arduratuko den Kontratazio Mahaia izendatu ahal izango du.

Kontratazio Organoak aurkeztutako eskaintzen lizitatzailleekin negoziatu ahal izango du, SPKLko 162. artikulua arabera.



- h. Esleipena: Kontratazio Organoak kontratua onena den eskaintzari esleituko dio, dituen txosten edo balorazio proposamenekin bat etorriz. Halaber, modu arrazoituan, lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.

8.3. PROZEDURA IREKIA

5.278.000 eurotik beherako obra kontratuak eta 211.000 eurotik (BEZ gabe) beherako beste edozein egiteko aplikatu ahal izango da. Kontratazioak honako izapideak eskatuko ditu:

- i. Hasierako Txostena: Kontratazioa ARABARRIko Zerbitzu Teknikoek egindako txostenarekin hasiko da, jarraibide hauen 7.1. atalean ezarritakoaren arabera.
- j. Baldintza Agiria: Baldintza Agiria egingo da, jarraibide hauen 7.2. atalean xedatutako edukiarekin.
- k. Prozedura irekitzea: Kontratazio Organoak ebazpena emango du, hasierako txostena eta baldintza agiria onartuz eta esleipen prozeduraren irekitzea xedatuz.
- l. Publizitatea: Lizitazioa kontrataziogilearen profilean argitaratuko du eta, 1.000.000 eurotik gorako obren kasuan eta 100.000 eurotik gorako gainontzeko kontratuetan, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, Kontratazio Organoak lizitazioa beste edozein hedabideetan argitaratzea erabakitzen duenaren kaltetan izan gabe.
- m. Proposamenak aurkezteko epea: Proposamenak aurkezteko epea agirian zehaztuko da eta gutxienez 15 egunekoa izango da, kontrataziogilearen profilean argitaratzen denetik.
- n. Akatsen edukia, aurkezpen forma eta zuzenketa: Proposamenak isilpekoak izango dira eta gutun-azal itxitan aurkeztuko dira, Agirian zehazten den moduan. Lizitatzailleek, eskatutako gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko, beharrezko agiri guztiak sartu beharko dituzte, baita eskaintza tekniko guztien betetzea ere, eskaintza ekonomikoa barne.

ARABARRIK eskaintzen akatsak zuzentzeko epea eman ahal izango du, Agirian zehazten den moduan.

- o. Eskaintza ekonomikoen irekitzea ekitaldi publikoan egingo da, kontrataziogilearen profilean lekua, data eta ordua adieraziz.
- p. Esleipen irizpideak: Kontratua esleitzeko oinarrirako balioko duten irizpideak, baita horien ponderazioa ere, Kontratazio Organoak zehaztuko ditu eta Agirian adieraziko dira; negoziatu ahal izango diren edo aldagaiak aurkeztu ahal izango diren alderdi ekonomikoak eta teknikoak egon ahal izango dira, Agirian espresuki horrela jasotzen bada.

Balorazio irizpideak zuzenean kontratuaren xedeari lotuta egongo dira: kalitatea, prezioa, burutzeko epea edo prestazioaren ematea, ingurumen ezaugarriak edo ezaugarri sozialak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, mantentzea, laguntza teknikoa edo antzekoak.

- q. Eskaintzak ebaluatzea. Kontratazio Organoak lizitatzailen gaitasuna eta, bereziki, ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala, ebaluatzeaz arduratuko den Kontratazio Mahaia izendatuko du; Kontratazio Mahaiak esleipen proposamena aipatutako organoari aurkeztuko dio, bidezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak oinarri hartuta. Mahaiaren eraketak jarraibide hauen 13. atalean ezarritako kideak eta Kontratazio Organoak beharrezkotzat jotzen dituen beste kideak hartuko ditu barne.
- r. Esleipena: Kontratazio Organoak kontratua behin-behinean eskaintzarik onenari esleituko dio, proposamenak baloratzeko Agirian ezarritako irizpide objektiboekin bat etorritik eta Kontratazio Mahaiaren esleipen proposamena ikusita. Kontratazio Organoak kontratua behin-behinean esleitzen ez duenean, proposamen honen arabera, bere erabakia arrazoitu beharko du.

Behin-behineko esleipen hori baldintzatzen du esleipendunak kontratua egiteko beharrezko agiriak aurkeztu behar izateak, baita, hala badagokio, aurkeztutako agirien akatsak zuzendu behar izateak ere. Horretarako, Kontratazio Organoak gutxienez bost eguneko epea emango du. Epe hori igarota, kontratua egiteko agiriak aurkeztuta eta, hala badagokio, zeuden akatsak zuzenduta, behin-behineko esleipena behin betikotzat hartuko da.



Kontratua egiteko beharrezko agiriak ez badira aurkezten edo akatsak zuzentzen ez badira, justifikatu gabe bertan behera utzi dela ulertuko da, eta horrela behin-behineko bermea konfiskatzeari ekingo zaio, eskatu izanez gero, behin-behineko kalte-ordainenen erreklamazioaren kaltetan izan gabe.

Kasu honetan, Kontratazio Organoak berriz ere zerrendan hurrengo geratu den lizitatuazaleari esleitu ahal izango dio, deskribatutako gainontzeko izapideak jarraituz; edo, bestela, lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.

Behin-behineko esleipenak eta behin betikoak kontrataziogilearen profilean argitaratuko dira.

Epaimahaiaren esku-hartzearekin egindako proiektu lehiaketei SPKLren 168. artikulutik 172. artikulura bitartekoak aplikatuko zaizkie.

Kontratazio Organoak lehiaketa elkarrizketaren prozedurara jo ahal izango du, SPKLren 163. artikulutik 167. artikulura bitartean ezarritakoari jarraiki.

Era berean, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemetara jo ahal izango du (esparru akordioak, kontrataziorako sistema dinamikoak eta kontrataziorako sistema zentralak), bertan, SPKLren 180. artikulutik 189. artikulura bitartean xedatutakoari lotu beharko zaio.

9. KONTRATUA EGITEA

Kontratua idatziz egingo da.

Kontratu txikietan zuzeneko esleipena baldin bada, aurrekontua onartzeak, faktura edota horren ordainketaren agiria ontzat emateak kontratua idatziz egin dela ulertzea dakar.

SPKLren 155. artikuluko b) eta c) letretan jasotako egoerentzat ezarritako esleipen zuzenak kontratua idatziz egitea eskatuko du. Bertan, kontratuaren xedeari dagokionez, alderdi bakoitzaren eskubideak eta beharrak jasoko dira.

Kontratuan ez dira inolaz ere barne hartu Agirietan ezarri ez diren eskubideak eta betebeharrak xedatzen dituzten klausulak, aurkeztutako eskaintzaren eta esleipen ekitaldiaren zehaztasunen ondoriozko zehaztapenekin.

10. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratuaren ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, Agirietan ezarritako baldintzak aplikatu dira (horrela erabakitzen bada, SPKLra igorri ahal izango dute) eta ordezko bezala, zuzenbide zibila.

11. BALIABIDEAK

Kontratuen prestakuntzari, esleipenari, ondorioei, betetzeari edo iraungitzeari buruzko edozein konturen aurrean, arbitraje batetara joko da, abenduaren 23ko 60/2003 Legeko xedapenen arabera.

12. KONTRATAZIOGILEAREN PROFILA

ARABARRIk Interneten bidez (www.arabbarri.net) kontrataziogilearen profila zabalduko du, kontratu jardunaren inguruko gardentasuna eta informaziorako sarbide publikoa bermatze aldera.

Kontrataziogilearen profilera sartzeko modua Agirietan zehaztuko da eta, hala egokitzen denean, lizitazioaren gainontzeko iragarkietan.

Kontrataziogilearen profilaren oinarri izan den informatika sistemak tresna berezia izango du modu fede emailean egiaztatu ahal izateko bertan emandako informazio noiztik dagoen eskuragarri.

ARABARRIko kontrataziogilearen profilak honako datuak eta informazioa hartuko ditu barne:

- s. Kontratazioaren barne jarraibide hauek.
- t. Kontratuen lizitazio iragarkiak, publizitate hori beharrezkoa denean, jarraibide hauetan ezarritakoaren arabera.



- u. Kasuaren arabera, kontratuen behin-behineko esleipena eta behin betikoa, publizitate hori beharrezkoa denean, jarraibide hauetan ezarritakoari jarraiki.

Horrez gain, kontrataziogilearen profilak ARABARRIko kontratu jardunaren inguruko edozein datu eta informazio hartu ahal izango du barne: lizitazio irekiak edo bideratzen ari direnak eta horiei buruzko agiriak, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, baliogabetutako prozedurak, Kontratazio Organoarekin harremana izateko erabil daitezkeen harreman guneak eta hedabideak, etab.

13. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia beharrezkoa den egoeretan edo horren esku-hartzea aurreikusita dagoen egoeretan, mahai horrek beharrezko kide hauek izango ditu:

Mahaiburua: Sozietateko Administrazio Kontseiluarena, ARABARRIko Kudeaketa Zuzendaritzan eskuordetu ahal izango da.

Idazkaritza: ARABARRIko proiektuaren arduraduna. Gainera, kide funtzioak erabiliko ditu.

Epaimahaikideak: ARABARRIko arlo teknikoko bi arduradun eta Sozietatearen Administrazio Kontseiluko ordezkari bat.

Kontratazio Organoaren bidez mahaiko kide gehiago izendatu ahal izango dira, ARABARRIko langileak edo hirugarrengoak.

Mahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute; bileren akta idatziko da eta hori kide guztiek sinatuko dute. Mahaia eratzeko eta egiten dituen bileretan, mahaiburua eta idazkaritza bertan izan beharko dira, eskuordetzeko aukerarik gabe.

Gainera, bertan, gutxienez, mahaiko kideen erdia gehi bat izan beharko dira, direla beraiek edo eskuordetutako ordezkariak.

14. KONTRATAZIOAREN BARNE JARRAIBIDEAK ONARTZEA ETA ALDATZEA

Jarraibide hauek ARABARRIko Administrazio Kontseiluak onartu ostean indarrean jarriko dira eta onarpen horren ondoren hasten diren kontratazio prozedurei aplikatu zaizkie.

Era berean, ARABARRIko Administrazio Kontseiluaren eskumena da jarraibide hauek aldatzea.